

III.2. ADITZ-IZENA: -T(Z)EN

- Gaztelaniazko gerundioari **-t(z)en** forma dagokio batzutan:

Jostatzen ari da - Está **jugando**

baina ez beti:

Eginaz ikasten da - **Practicando** se aprende
Hori **eginda** zer lortuko duzu? - ¿Qué vas a conseguir **haciendo** eso?

- EGITEN formak **zertan** galderari erantzuten dio eta EGINAZ formak **nola** galderari:

zertan { Idazten ari da nola { Nobelak idatziz bizi da
 { Irakurtzen hasi da { Nobelak irakurriz lasaitzen da

- **-T(Z)EN** formaren erabilera:

1. *Como objeto de verbos que significan 'percibir'; 'saber', 'ser diestro', 'ser fácil'...*
(**sumatu, ikusi, entzun; jakin, ikasi, trebe izan, erraz izan...**):

- **Ez zaitut sartzen** sumatu - No te he sentido entrar
Kartera hartzen ikusi dut - Le he visto cogiendo la cartera
Jaikitzen entzun dut - Le he oído levantarse
- **Badaki gitarra jotzen** - Sabe tocar la guitarra
Ez du gidatzen ikasi - No ha aprendido a conducir

Oharra: Ikus diferentzia hauek:

(zer) Salda egitea ahaztu zait - Se me ha olvidado hacer el caldo
(zertan) Salda egiten ahaztu zait - Se me ha olvidado hacer el caldo (cómo se hace)

(zer) Gauza erraza da hori egitea - Es fácil hacer eso
(zertan) Erraz da hori egiten - Es fácil hacer eso (Eso es fácil de hacer)

2. *Como objeto de verbos que indican inicio, continuación o realización de una acción*
(**hasi, ari, ibili, utzi, lagundu, ohitu...**):

Bazkaria prestatzen hasi da Musika ikasten ari da
Autoa hartzen utzi dio Gezurrak esaten ibili da
Mailetak eramaten lagundu diot Goizago jaikitzen ohitu behar duzu
Etxeko lanak egiten ari da Lapurtzen harrapatu dute

ARIKETAK

1. Bete itzazu hutsuneak parentesi barruko aditza behar bezala erabiliaz:

1. Telebista hondatua baduzu, ekarri gugana; trebeak garagu telebistak ... (konpondu)
2. Noiz ikasi behar duzu gauzak behar bezala ... ? (egin)
3. Ez diote ... utzi gorbatarik ez zeukalako (sartu)
4. Ikusi al duzue nire aita hemendik ... ? (pasatu)
5. Ez da erraz zuekin ... , mutilak! (asmatu)
6. Igandero mendira ... segitzen al duzu? (joan)
7. ... sumatu ditut, baina ez dakit nora joan diren (irten)
8. Badakit afaria ... , baina ez dut prestatu nahi (prestatu).
9. Urteak dira ez dudala bizikleta hartu, honezkero ... ere ahaztu zait (ibili)
10. Erraza al da mendi horietara ... ? (igo)
11. Soldadutzaren aurkako sinadurak ... ibili da Mikel (bildu)
12. Ohituta nago lan gogorak ... (egin)
13. Lagunduko dizut gauzak etxera ... (eraman)
14. Nork utzi dizu nire gelan ... ? (sartu)
15. Atzo erositako txipiroiak ... ari gara (jan).

2. Euskaratu:

1. No es fácil hacer todo lo que se quiere.
2. ¿Has aprendido a andar en moto?
3. No he visto entrar a nadie.
4. ¿Sigues saliendo con el hermano de Maite?
5. Les han pillado robando comida.
6. Ha estado cogiendo setas, pero no ha encontrado muchas.
7. Siempre me ayuda a recoger la cocina.
8. ¿Me dejas oír el disco de Oskorri?
9. ¿Qué estás diciendo?
10. Cuando llegue el otoño, empezaré a estudiar otra vez.
11. ¿No te parece que estás hablando demasiado?
12. Estoy acostumbrado a acostarme tarde.
13. Si sigues bebiendo, te echarán del trabajo.
14. Déjame decirte una cosa: ese trabajo no te conviene.
15. Lo que estás diciendo no es cierto.

Testuak lantzen

1 Irakurgaia

ORDUBETE HORRETARAKO?

Bulegari trebe eta saiatua zen Rodolfo. Hogeita lau urte zeramatzan bulego hartan eta ez zen inoiz berandu iritsi lanera. Bajarik ere ez zuen inoiz hartu, gripe txar batek jo zuen urte batean izan ezik.

Egun batean, ordea, berandu agertu zen lanera. Ordubete berandu iritsi zen. Eta nola, gainera! Aurpegia ubelduraz eta tiritaz betea zekarren eta goiko ezpaina ebakia. Eskerreko besoa, berriz, zapi batean sartua lepotik zintzilik. Zangoan ere bazeukan zerbait, herrenka baitzebilen, eta fraka azpian benda batzuk ikusten zitzaizkion...

Bulegoko zuzendaria jenio biziko gizona zen eta egun hartan urduri zebilen. Presa handiko lanen bat bazeukan nonbait Rodolfoentzat eta hau garaiz etorri ez zela ikusita izugarri haserretu zen. Bitan edo hirutan joan zen Rodolfogana, baina hura ez zegoen bulegoan.

Sartzen ikusi zuenean, garrasika hasi zitzaion:

—Ordubete berandu zatoz, konturatzen al zara?

—Bai, jauna, badakit berandu natorrela —erantzun zion poliki Rodolfok—, sentitzen dut. Etxetik irteterakoan persianak ixten hasi naizenean, gorputza gehiegi atera eta hortxe joan naiz hirugarren pisutik kalera...

—Eta —erantzun zion hotz eta gogor zuzendariak—, ordubete behar al da horretarako?

↪ a. Testua jarraituz, amaitu ondoko elkarrizketaren esaldiak:

Zuzendariak: —Egun on,.....
Rodolfok: —Bai, badakit. Baina ezin
Zuzendariak: —Zer gertatu?
Rodolfok: —Leihoa ixterakoan
Zuzendariak: —Eta horretarako?

↪ b. Aurrekoaren antzekoa da ondoko testu hau ere. Bete itzazu hutsuneak:

Gure alaba Idoia motoan zihoala erori eta zauritua gertatu ... atzo. Eritetxera eraman ... berehala eta han sendaketak egin ondoren etxera bidali zuten.

Nolako itxura zekarren gaixoak! Aurpegi osoa ubelduraz betea Burua, berriz, bendaz josia ... eta eskuineko eskumuturra igeltsoan bildua. Zangoetan ez zuen ezer eta eskerrak horri. Ibiltzeko gauza behintzat ba... .

Motoa, berriz, ezertarako ez dela geratu zaio. Badakit zer pentsatuko ... orain Idoiak. Sustoa ahaztu bezain laster, moto eske hasiko zait berriro. Eskolara ... behar duela esango dit eta berria erosteko, mesedez. Eta ama, jakina, haserretu egingo ..., horrelakorik entzun ere nahi ez

Alabak baietz eta amak ..., badugu berriro sesioa etxean.

sesio: *discusión*